

45. atala: Bakarka

Reality

45.1.- Ordenatu audioan aipatzen direnak hurrenkera egokian (1-6):

- 1.- Eskisabel kapitainak Trebiñu II operazioak ikusgarritasuna galdu duela adierazi die bi astronautei eta reality bat egitea erabaki dutela jakinarazi die. _____
- 2.- Kevinek ez du argi Eskisabel kapitainak makako era maitagarrian edo iraingarrian esaten dien. _____
- 3.- Eskisabelek jakinarazi die bi astronautei edozein momentutan edonork Trebiñu IIrekin konexioa egin eta zertan dabilizan ikusi ahal izango duela. _____
- 4.- Realityaren emisioa hasi bezain laster, Tasiok ikusleak agurtu eta Johnson aurkeztu du. _____
- 5.- Kevinek lasaitzeko eskatu dio Tasiori, eta gauza bera behin eta berriro errepikatuz Martin Berasategi dirudiela esan dio. _____



5.2.- Kevinek eta Tasiok "24 ordu Trebiñu II" realityan hartzen dute parte.

a) Nolakoa da reality hori?

1. Sukaldarien showak
2. Biziraupenekoak (toki exotikoetan egonaldiak, probak...)
3. Maitasun hitzordu edo kontaktuak egiten dituztenak
4. Kamera ezkutua
5. Talentu bila doazenak
6. Toki itxietan sartu eta egunerokotasuna kontatzen dutenak
7. Coching show (ekintza batzuk egiteko edo abilezietan trebatzeko laguntza eskaintzen dutenak: irudi-aldaketa edo etxe-aldaketa, hezkuntza, ohitura osasuntsuak, ingurugiroa...)

45. atala: Bakarka

b) Jarraian bi reality-moten ezaugarri batzuk emango zaizkizu. Lotu bakoitza bere tipologiarekin:

Toki itxian jende multzoa sartzea (Anaia Handia)	Kamera ezkutua
<ul style="list-style-type: none"> • • (...) 	<ul style="list-style-type: none"> • • (...)

- Partaideak adin bertsukoak izaten dira
- Helburua ikusmina eta nagusiki morboa sortzea da
- Jendeak ez daki norbait grabatzen ari denik
- Partaideak ezezagunak dira
- Casting bat egiten da
- Helburua grazia egitea edo ezustekoa ematea da
- Adin eta mota desberdinetako jendeak hartzen du parte
- Partaideek ospea bilatzen dute



45.3.- Erreparatu pasarte honi:

K- Oraindik ez dut oso argi era maitagarrian edo iraingarrian esaten diguzun makako...

E- Zuk zer uste duzu?

*K- Bada, bueno, zuk eta biok dugun **elkarren** ezagutza kontuan hartuta, kariñosoa esango nuke.*

Elkar izenordaina **bata bestearen** parekoa izan daiteke eta kasu marka ia guztiak har ditzake.

Adibidez:

Bata besteari begira daude / **Elkarri** begira daude

Bata bestea gorrotatzen dute / **Elkar** gorrotatzen dute

Bata bestearekin etorri dira / **Elkarrekin** etorri dira

Bata bestearen menpe daude / **Elkarren** menpe daude

Itzuli beheko pasartea “elkar” erabiliz.

Tasio y Kevin no trabajaban juntos; se han conocido en esta misión.

Se llevan bastante bien, y, aunque a veces no se soportan, delante de la capitana se defienden entre ellos.

A pesar de que viven lejos uno del otro, cuando acabe la misión, saldrán a cenar juntos de vez en cuando.

45. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:42)

E- Kaixo, makako pare.

T- Egun on, Eskisabel kapitaina.

K- Oraindik ez dut oso argi era maitagarrian edo iraingarrian esaten diguzun makako...

E- Zuk zer uste duzu?

K- Bada, bueno, zuk eta biok dugun elkarren ezagutza kontuan hartuta, kariñosoa esango nuke.

T- Ze ezagutza klase da hori, bada?

E- Ez da ezer, Johnsonen ergelkeriak, badakizu.

E- Kasu honetan ez da ez kariñosoan ez iraingarrian. Modu objektiboan esaten dizuet.

T- Ez dut ezer ulertzen... Zer galdu dut bidean?

E- Trebiñu II operazioa hasi zenetik bi hilabete pasa dira, eta komunikabide eta herritarren artean operazioak ikusgarritasuna galdu du.

K- Bada, nik dakidala egunero irratian ematen dute gure berri.

E- Bai, baina askori oso arrotzak egiten zaizkie zuen gorabeherak.

T- Hori gidoilariaren errua da. Gidoilari hau aldatu eta kito.

E- Ja, ez legoke gaizki, ez, baina horretarako jada berandu da.

E- Kontua da beherakada horri buelta emateko reality bat egitea erabaki dugula.

T- Reality bat?

E- Bai, espazio-estazioetik zuzenean. Izenburua: *24 ordu Trebiñu II*-n.

E- Beraz, uler dezazuen, zuek kaiola espazial batean zaudeten bi makako zarete.

T- Konparazioak ez nau batere konbentzitzen, e?

E- Datozen 24 ordutan, edonork, bere ordenadore edo telefonoarekin edozein momentutan, Trebiñu II-rekin konexioa egin eta zertan zabilatzaten ikusteko aukera izango du.

T- Edozein momentuk edozein momentu esan nahi du?

E- Zoritxarrez, bai. Prest egon emisioa berehala hastera goaz eta.

K- Berehalak berehala esan nahi du?

E- Baietz bada! Eta horren inguruan hitz egin nahiko nuke zuekin. Bi hilabete hauetan ikusitakoa ikusita... behingoagatik behintzat, saiatuko al zarete Trebiñu II operazioa lotsagarri ez uzten?

E- Eta emisioa hastera doa. Oroitu esandakoa, mesedez. 3, 2, 1... zuzenean gaude!

T- E... e... Kaixo, e... hemen gaude, Trebiñu II espazio-estazioan...

K- Tasio, suposatzen da guk ez dugula saioa aurkeztu behar, normal jokatu behar dugula.

T- Oraintxe hitz egin dizue Johnson da.

K- Tasio, ez zarela aurkezlea, txo! Normal jokatu, inor begira izango ez bazenu bezala.

T- Inor begira? Barkatuko diozue errespetu falta, ikusle maiteak.

K- Tasio, "reality" hitza nondik datorren ba al dakizu?

T- Hau Sarasola eta Johnson ortzinauten logela da.

K- Tasio, edredoning-a egiteko ez al da goizegi?

T- Edre... zer?

K- Tasio, mesedez, lasaitu zaitetz. Hirugarren pertsonan hizketan hasi zara-eta!

T- Johnson, mesedez, azalduiezu gure ikusleei zein modu profesional eta umilean gauzatzen dugun hemen gure lanbide sakratua.

K- Gure lanbidea? Zein da gure lanbidea, Tasio?

T- Bueno, gu... gu amets-garraiolariak gara.

K- Tasio, hirugarren pertsona hizketan. Esaldi horiek behin eta berriro errepikatzen, jabetzen al zara Martin Berasategi dirudizula?

E- Baina zein momentutan sinistu nuen hau ongi aterako zela... Norbaitek ba al du tabakorik?

45. atala: Bakarka

Erantzunak

45.1.-

- 2
- 1
- 3
- 4
- 5

45.2.- Toki itxietan sartu eta egunerokotasuna kontatzen dutenak

Toki itxian jende multzoa sartzea (Anaia Handia)	Kamera ezkutua
<ul style="list-style-type: none"> ● Partaideak adin bertsukoak izaten dira ● Helburua ikusmina eta nagusiki morboa sortzea da ● Casting bat egiten da ● Partaideek ospea bilatzen dute 	<ul style="list-style-type: none"> ● Jendeak ez daki norbait grabatzen ari denik ● Partaideak ezezagunak dira ● Helburua grazia egitea edo ezustekoa ematea da ● Adin eta mota desberdinetako jendeak hartzen du parte

45.3.-

Tasiok eta Kevinek ez zuten elkarrekin lan egiten; misio honetan ezagutu dute elkar.

Nahiko ondo konpontzen dira elkarrekin, eta, batzuetan elkar aguantatzen ez badute ere, kapitainaren aurrean elkar babesten (defendatzen) dute.

Nahiz eta elkarrengandik urruti bizi, misioa bukatzean, elkarrekin aterako dira noizean behin afaltzera.